

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** info

Osteguna, 2012ko abenduaren 6a. IX. urtea. 2.446. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Bi pilotari leitzarrek jantzi ahal dituzte lau t'erdiko txapelak

Oinatz Bengoetxea

Maila nagusiko finalista

«Lasai egotea garrantzitsua da, baina lasaiegi egotea ere ez da ona izaten. Tentsio pixka bat behar da»

Jon Jaunarena

Bigarren mailako finalista

«Untoria oso aurkari gogorra da, irabazi nahi badut asko jokatu beharko dut, finala oso gogorra izango da» **4-5**



Jon Jaunarena eta Oinatz Bengoetxea Leitzako Karrapean, azken honek partidaren atzerapena iragarri baino lehen hartutako irudian. I. TERRADILLOS

24.787.695
euroko
aurrekontua
izango du
Tolosako Udalak

Gizarte zerbitzuak eta enplegu politikak indartuko dituztela argitu dute **2**

Aizkardi taldearen Argazki Rallyak baditu sarituak

Imanol Amantegik irabazi du sari nagusia eta Olaia Ugarte izan da bigarren **7**

Emakumeen Napar Pala Lehiaketa, Leitzan

Igandean izango dira partidak, 11:30ean **2**

Espainiako Gobernuak Lehiberrin jarri beharreko milioi bat euro, ezbaian

Tolosaldea Garatzen agentziak epaitegietara jo du udaberrirako martxan egongo den Lehiberri zentro berrirako falta den dirua eskatzeko, Espainiako Gobernuak ez baitu diru laguntza guztia eman **3**

Herritarren ekarpenekin osatu dute Joxe Arregi plazako proiektua

Besteak beste, komun publikoak, 300 metro karratuko estalpe bat eta nerabeentzako gunee bat egitea aurreikusi du udalak **7**

Egin HITZAren harpidedun...

...abenduaren 31 baino lehen eta jaso
Mahala baserriko
produktuez osatutako
saski ederra...



eta...

... HITZAren harpidedunen artean

PORTUGALEN egiteko
bi pertsonentzako zirkuitua
zozkatuko dugu

harremanetarako: 902 82 02 01 / harpidedun@hitza.info

hitza



Lore Agirrek, Ibai Iriartek eta Inaki Irazabalbeitiak gizarte politikari eman nahi dieten bultzada nabarmendu zuten, atzo egindako agerraldian. I. URKIZU

Sei hilabeteko 50 lanpostu sortuko ditu Tolosako Udalak, 2013an

Gizarte zerbitzuetara eta enplegu politiketara bideratuko dute, nagusiki, 24.787.695 euroko aurrekontua

Itzea Urkizu

Aurkeztu dituzte jada, Tolosako udal gobernuak kideek, 2013ko aurrekontu proposamenak. Lore Agirrek, Ibai Iriartek eta Inaki Irazabalbeitiak azaldu dutenez, gizarte zerbitzuetara nahiz enplegu politikara bideratuko dute aurrekontuaren zatirik nabarmena. Besteak beste, herritarren larrialdiei erantzuteko diru poltsa handituko dute %40an, eta 50 lanpostu sortuko dituzte.

Udal gobernuo kideek, «inbertsioetarako gaitasuna asko jaitsi» dela azpimarratu nahi izan dute, eta horrekin batera, beharrak ere hazi direla azaldu dute: «Herritar askok zailtasunak dituzte hilabete amaierara iristeko, eta ondorioz, udalaren lehen tasuna herritar hauen beharrei erantzutea da».

Horrela beraz, eta 2013ko aurrekontuei begira, irizpide nagusi bat izan dutela azaldu dute udal gobernuo kideek: «Politika egiteko beste modu batean sinetsiz, gizartea oinarria dela uste dugu, eta gizartean inbertitu nahi dugun».

Horretarako, ordea, Tolosako Udalak diru-sarrerak behar dituela argi azaldu dute; ordenantza fiskalen bitartez, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak fiskalitate arloan hartutako neurriekin, 2012an adina diru-sarrera izango dituztela bermatu dute. Honen bestez, 24.787.695 eurokoa izango da, Tolosako Udalak 2013rako izango duen aurrekontua.

Proposamen hauxe, gainerako alderdiei aurkeztu dietela azaldu du Ibai Iriarte alkateak, eta datorren abenduaren 20an, 19:00etan, honen inguruko herri batzarrean parte hartzera deitu ditu herritarrak.

Gastu soziala 2013rako

Bost arlotarako proposamenak egin ditu, udal gobernuak, datorren urterako.

Gizarte zerbitzuetan, esatera

ko, behar bereziak dituzten pertsona zein familien larrialdietarako diru poltsa %40 handitu dute.

Era berean, garapen ekonomikoari begira ere, inbertsio nabarmenak egin nahi dituzte. Batetik, sei hilabeteko 50 lanpostu sortzea dute helburu, enplegu programa berri baten bidez; 600.000 euro bideratuko dituzte horretarako, eta alkateak, jardun honetan «indar berezia» egiten ari direla azpimarratu du, langabezia %15 ingurukoa baita Tolosan. Gainera, Tolosa Merkat egitasmoaren bidez Kale Nagusia aktibatzea, eta Erretengibilek, merkatariei bezalaxe, autonomiei ere diru laguntzak ematea, nahi dute.

Parekidetasuna lantze horretan, 2013an ere izango du jardunik udalak, eta foru aldundiaren diru-laguntza baten bitartez, lanaldi erdian aritzeko teknikari berria kontratatuko dute.

Hizkuntza politikiei dagokienez, berriz, «2013ko Kilometroak jaiaren olatua probestu», eta euskarari bultzada berezia ematea du helburu udal gobernuak. Bi jomuga zehaztu dituzte, gainera: Tolosaldeko euskarazko hedabi-

deen bateratzea eta Tolosa UEMAN sartzea.

Azkenik, azpiegiturari begira ere zehaztu dituzte 2013ko helburuak. Besteak beste, urtarrilean bertan hasiko dira Berazubi estadioko lanak, eta Amartzuz auzoko Iruña etorbideko obrak ere 2013an hasiko dira. Halaber, Ze-

Berazubi estadioko eraberritze lanak 2013ko urtarrilean hasiko dira

Abenduaren 20ko herri batzarrean aurkeztuko diete proposamena herritarrei

zen plaza alboko espaloia zabaldu nahi dute, «komertzio dentsitate handia duelako», irisgarritasuna hobetz, jendearen joan-etorriari erantzuteko.

Gazteen emantzipazioa ere kontuan izan nahi du Bildu eta Aralarren udal gobernuak, eta Euskal Herria plazarako egina dagoen plana gauzatzen hasiko

↓ Proposamenak

Gizarte zerbitzuak. Behar bereziak dituzten herritarren larrialdiei erantzuteko diru poltsa %40an handitu.

Garapen ekonomikoa. 50 enplegu sortu; Tolosa Merkatekin 4 lokal berri Kale Nagusian; Erretengibileen bidez autonomiei eta merkatariei lagundu.

Parekidetasuna. Teknikari berria kontratatu lanaldi erdirako.

Euskara. Eskualdeko euskarazko hedabideen bateratzea eta UEMAN sartzea.

Azpiegiturak. Berazubi estadioko lanekin hasi; Amartzuz obrekin hasi; Zezen plaza alboko espaloia zabaldu; EH plazan alokairu soziala; landa auzoetan interbentzio soziala; autokarabanentzako gunea; Elozegi parkeko zorraren erdia ordaindu.

dira 2013an: 27 etxebizitza sustatuko dituzte alokairu sozialaren bidez, gazteei begira.

Turismoa sustatzeko bide berriak erabiltzen hasi nahi du udal gobernuak 2013an, eta autokarabanentzako eremu bat egin nahi dute; oraindik ezer erabaki ez duten arren, San Esteban auzoa leku egokitzat dutela azaldu du Ibai Iriartek. Horrekin batera, landa auzoen lehen tasunei erantzuteko plangintza bat diseinatzea 2013ko jardueren artean zehaztu dute.

Lore Agirrek Elozegi parkeko auzia ere hizpide izan du, eta zorraren erdia, udalaren baliabide propioetatik, abenduaren 31rako ordainduta izango dela azpimarratu du; 2013tik aurrera, 4 milioi euro gehiago ordaindu beharko ditu udalak. Honen harira, parkea bera herritarrei irekitzea da udalaren helburua, eta 15.000 euro aurreikusi dituzte horretarako. Eremua txukuntzeko, berriz, auzolana bultzatuko dute.

Zeharlerroak landuz

2013ra begira, hainbat departamenturen jarduna hartuko duten zeharkako zenbait proiektu sortu ditu udal gobernuak, «beste modu batean lan egiten hasteko».

Bi egitasmo nabarmendu dituzte, eta lurremendiko herri batzera izango da bata; belaunaldien arteko elkartrukea sustatu nahi dute. Gisa berean, irisgarritasun arazoak dituztenentzat egokitu nahi dituzte herriko hainbat gunea; 120.000 euro bideratuko dituzte honetara.

↓ Iragarki laburrak

SALGAI EDO ALOKAIURUAN

Etxebizitza. Etxebizitza bat alokatzen da Tolosako Alde Zaharrean. Sukalde, egongela, 3 logela, bainugela eta terrazarekin. Interesatuak deitu 618 77 29 98 telefono zenbakira.

Ile apaindegia. Villabonan, ile apaindegia saldu edo alokatu nahi da. Interesatuak 630 099 092 telefono zenbakira deitu behar dute.

Autoa. Citroen Berlingo XTR saltzen da, 2008. urtekoa. Aukera ezin hobea. Interesatuak deitu: 635 203 056.

LAN BILA

Etxeko lanak. Etxeko lanetarako: etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko, emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. Autoa badauka. 943 696882 / 606 521992



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Tolosaldea Garatzenek auzitegietara jo du Lehiberrirako falta den diru laguntza eskatzeko

Espainiako Gobernuak milioi bat euro eman gabe utzi du; Lehiberri udaberrian martxan izango dela esan dute

Imanol Garcia Landa

Tolosaldea Garatzen garapen agentziak auzitegietara jo du Espainiako Gobernuari Lehiberri egitasmoarentzako diru laguntza eskatzeko. Espainiako Gobernua-rekin hitzartutako diru laguntza-ren milioi bat euro falta da eta kopuru hori eskatuko dute. Garapen agentzia osatzen duten 24 udalerrien izenean agerraldia egin dute, eta Lehiberri proiektuak Gipuzkoako Foru Aldundiari esker aurrera egitea lortu duela esan dute. «Indarrez diogu eskualdearentzat erreferentziazko izango den gune hau martxan jarriko dugula udaberriarekin batera. Aipatzekoa da, herri guztiek adierazi duten konpromisoa eta eman dioten bultzada ere», azaldu dute agerraldian.

Eskualdeko 24 udal horiek aho batez Lehiberri proiektuaren aldeko mozioa onartu dutela azaldu dute, eta Gipuzkoako Batzar Nagusiek zein Eusko Legebiltzar-arak mozio bera onartu dutela ekarri dute gogora. «Xedea da egitasmo hori aurrera ateratzea, ho-



Tolosaldea Garatzenen dauden 24 udalerrietako zenbait ordezkariak egin dute agerraldia. I. URKIZU

rretarako Estatuari zor duen dirua jartzea eskatzen zaiolarik. Ziur baikaude gure eskualdearen etorkizuneari funtsezko eremintaz izango dela», esan dute udal horietako ordezkariak.

Tolosaldea Garatzenek «egoera zaila» bizi duela esan dute udal-letako ordezkariak. «Dena dela, garapen agentzia hau buru-belarri dabil lanean krisi honi aurre egiteko egitasmo berriak mar-

txan jarriaz», azpimarratu dute. Krisiaren ondorioz, erakunde publikoengandik jasotzen diren diru laguntzak «nabarmen murriztu» direla azaldu dute eta egoera horri aurre egiten ari direla: «Tolosaldea Garatzen gogor dihardu lanean, eta lan horren uza jasotzen ari da jada».

Eguno «egoera ekonomiko larritik» lehenbailehen ateratzeko Tolosaldea Garatzen «buru-bela-

rri lanean» ari dela jakinarazi nahi izan die herritar guztiei. «Bereziki, egoera honetan kalte-tuen diren emakume eta gazteak aintzat hartzen. Horretarako, ezinbestekoa ikusten dugu siner- giak batzea, eskualdeko eragile sozial politikoko sindikal guztiekin elkarlana bultzatzea», gaineratu dute.

Krisi garai honetan, Tolosaldea Garatzenek enpresa ehunari, he-

rrirei, langabetuei, ekintzaileei, merkatariari, kontsumitzailei... zerbitzua ematen jarraitzen duela azaldu dute, «hori baita bere izatearen arrazoia». Garapen agentzia horren helburua da «eskualdeko enpresa zein eragile so- zio ekonomikoak babestu eta bul- tzatzea, edozein dela ere bere ta- maina, sektorea eta egoera». Bestalde, langabetuei bidea egi- ten saiatzen direla esan dute, «for- makuntza eta bide berriak ireki- tzen».

Premisa hori abiapuntutzat hartuta, Lehiberri egitasmoa martxan jarri zutela esan dute, hau da, «Tolosaldea Garatzenen proiektu estrategiko garrantzi- tsuena den egitasmoa». Agerral- dian Lehiberriren helburuak ze- haztu dituzte: «Eskualdeko eragi- le ekonomiko guztien topagune bihurtzea eta Tolosaldeko proiektu berritzaileen haztegi izatea. Eskualdeko erreferentziazko gune izatea nahi dugu».

Lehiberri Tolosaldea Garatze- nen «eskualdeko garapen inte- grala bultzatzeko erreminta mo- duan» erabili nahi dute, «eragile sozial eta ekonomikoek errefe- rentziazko izango duten gunea». Udalerriek argi dute eskualde mailako politikak sustatu behar dituztela, «etorkizuneko Tolosal- dea denen ikuspegiaren ondorio izango delako edo ez baita izango bestela».

Irudia ▶ Tolosa



TXOTXONGILOA, IBARRARA

Guadalupe Aizpurua Caminos ibartarra izan da Titirijai jaialdia- ren barruan egin den zozketaren sariduna. SOS Titelles konpainiak egindako txotxongilo bat jaso du. HITZA

XXXI. Shanti Torneoan izena emateko epea hilaren 11n bukatuko da

Tolosako Shanti Kirolak dendara joan behar da, eta alebin eta benjamin mailetan eman daiteke izena

I. Garcia Landa Tolosa

Tolosako Eguberrietako XXXI. Txapelketan, Shanti Trofeoan, parte hartzeko izena emateko epea zabalik dago. Alebin eta benjamin mailetan parte hartzen da, eta nesken taldeak zein mutilen taldeak parte hartu dezakete. Alebin maila 2001 eta 2002 urte- etan jaiotakoak dira, eta benjami- nak 2003 eta 2004 urteetakoak. Ize- na Shanti Kirolak dendan eman behar da eta horretarako epea hi- laren 11n amaitzen da.

Emakumeen I. Napar Pala Txapelketaren bigarren jardunaldia, igandean

Leitzan partidak jokatuko dira; Iera Agirre herritarrak parte hartuko du, Arozena lizartzarraren aurka

I. Garcia Landa

Emakumeen I. Napar Pala Txapelketa bere bigarren jardunaldi- ra iritsiko da igandean, eta zen- bait partida Leitzan izango dira, 11:30etik aurrera. Hala, elite mai- lan Iera Agirre leitzarra eta bere bikotekide Claire Bordagarai Na- gore Arozena lizartzarra eta Amaia Irazustabarrenaren aurka ariko dira. Lehen mailan, berriz, Elisabeth Pagola eta Ines Larrion bikotea Maitane Agirre eta Maite Urtasun bikotearen aurka ariko dira. Beste partidak Olaztin joka-

tuko dira, baina elite mailako Maider Mendizabal anoetarrak eta berarekin aritzen den Rebeka Continek atsedena izango dute. Olaztin jokatuko du, lehen maila- ko txapelketan, Ainhoa Garmen- dia alegiarrak eta Saioa Aristore- nak Judith Etxarriren eta Maddi Mendizabalen aurka.

Lehenengo jardunaldian, elite mailan, Agirrek eta Bordagarik 30-28 irabazi zieten Munetari eta Anduezari. Markagailuan atzetik joan baziren ere, Agirre leitza- rrak eta Bordagarik 28 tantotara berdinu eta garaipena eskuratu zuten. Mendizabal anoetarrak eta Continek, berriz, 30-18 irabazi zie- ten Graciet eta Arrieta bikoteari. Markagailuak erakusten duena baino borroka handiago izan zen kantxan. Lehen mailan, Garmen- diak eta Aristorenak atsedena izan zuten.

Oinatz Bengoetxea • Pilotaria

Maila Nagusiko lau t'erdiko finala astebate atzeratu dute, Bengoetxea ondoezik dagoelako; Olaizola izango du abenduaren 16an aurkari, eta faboritoa hura den aren «esperantzarekin» doala finalera esan du leitzarrek.

«Ehuneko ehunean jokatu behar da»

Higo Terradillos Letza

Igandetik ahal zegoen Oinatz Bengoetxea (Leitza, 1984), sukarrarekin, gastroterritasik jota. Atzora arte itxaron maila izan du eta errekuperatzen zen eta igandean lau t'erdiko finala jokatzeko gaitzen ikusteko. Baina, ez da posible izan. Bere burua ez du partida hori jokatzeko moduan ikusi, eta atzeratzea eskatu du. Aimar Olainolaren eta Oinatz Bengoetxearen arteko finala abenduaren 15an jokatu da, Gasteizko Ogea pilotalekuan. Maila nagusiko lau t'erdiko estreinala txapelata jasuteko aukera du leitzarrek.

«Zaila izango da finala, Aimairek lau t'erdian onena dela erakutsi baitu»

«Zaila izango da finala, Aimairek lau t'erdian onena dela erakutsi baitu»

ko, gogotsu eta ilusio handiarekin nago. Aimairek erakutsi du zaila urteotan lau t'erdian bera dela onena, eta horregatik, badakit oso zaila izango dela irabaztea. Baina, ni gutxiara aterako naiz, eta ahal dudan hobekien eperren sartuko naiz.

Non gongoz da finalaren galaka?
Goko asko izan ditzaite finalak. Bisk erasora atzeratzen garoenon norik asmatzen duen. Hori izan duteko gogotsu bat, samaten duenak min egiten baitu. Zorte pixka bat ere izan beharko dut irabazi nahi baitut.

Irabazteko esperantzarekin ordue?
Bai, irabazteko esperanta dut, eta nik ere badinaila iraditen zait.

Finala bezalako egun bati nola egiten diozue aurre?
Lesai egotea garrantzitsua da, baina lasasgi egotea ere da ona izaten. Tentsio pixka bat behar izaten da horrelako partidei aurre egiteko.

Zer litzateke txapelleta izateko?
Sekulako poza sentituko nuke txapeleta ekaritzea guzti handia baita. Duela lau urte lortu nuen buruz buruzko izan da nire garaipean handiena, eta hau irabazteko.



Oinatz Bengoetxea eta Jon Jaunarena, Leitzako plazan, atzera pilotalekua dute la.

gero hura bezain garrantzitsua izango litzateke.
Jon Jaunarena leitzarrek ere finala jokatu du, etzi.
Bai, Jon, bai eta ni ere finalera iristea poz handia da guretzat, eta leitzarrentzat, eta espero dugun biak ongi jokatzeko, eta es irabazteko zortea dugun. Boki irabaztes festan handi bat litzateke leitzarrentzat.

Nola ikusten duzu Untoriaren eta Jaunarenen aurkako?
Jon ongi ikusten dut, bigarren mailan maila oso ona ematen arda, eta maila nagusirako doakak dituela erakusten ari da. Gerotz eta hobe ari da jokatzeko, galnera. Baita bat, hurrez buruzkoan bere kolpearekin nabarmen zuten da. Hala ere, Bigarren Mailako Txapelketa irabazte ez da erraza.

Untoria oso pilotari gogorra eta harhako du irabazteko.
Zaila izango duzue finalaren.
Leitzar ugari izango dira finalerantz, eta babestera. Oso polita izango da, eta espero dut jendeak nik bezainbeste gozateko. Partidaren ostean, afarian elkartuko gara guztiak, eta parrandakoro tartean ere izango da.

Jon Jaunarena • Pilotaria

Bigarren Mailako lau t'erdiko finala jokatu du etzi, leitzar pilotari gazteak, Labrit pilotalekuan. Aurtengoa buruz buruko eta binakakoa irabazi ostean, Untoriaren aurkako irabaziz gero, urtea biribilduko luke.

«Irabaztea ikaragarria litzateke»

I. Terradillos Letza

Errez ahaztu ezinezko urtea izango da Jon Jaunarentzat (Leitza, 1990) 2012. Bigarren Mailako Binakako Txapelketa irabazi zuen, baita binakakoa ere, eta etzi, Lebitri pilotalekuan, lau t'erdiko txapelata jantzi dezake. Untoriaren aurkako finala irabazi beharko du horretarako.

Zer moduz ikusten duzu zure burua finalaren aurrean?
Nahiko ongi. Azken entrenamenduetan ez naiz oso gutxira gertatu, baina, esateko gausak ondo irizten dituen.

Irabazteko konfiantzarekin al zara?
Bai. Bete izaten dira finalera begirako urduritasunak, ez baitakiru zer nolako partida izango den. Baina, gogotsu nos, gausak ongi

egiteko gogoz. Irrikak nago larunbata iritsi eta partida jokatzeko.
Zer moduz aurkaria da Untoria?
Oso gogorra da. Lan handia egiten ari den, eta pilotatzen asko gustuen du. Oso zaila da berartantzeko egitea, lan handia egiten behar du horretarako. Irabazi nahi bada asko jokatu beharko du. Finala oso gogorra izango da.

Nonegongo da galaka?
Bai. Aurreko finalaren egin gero, baina, Gasteizmenen herriko elkartean afitara egingo dugu. Txapelketa jantzi dezake salartuko ateko.

Finalaren ere herriaren babes handia izango duzue.
Lagunak eta famillako ugari izango dira Labriten animatzen, eta hori eskertzeko da. Giro polita

izango da. Ea ikusleei partida on bat eskaintzen dugun.
Asteburu biribilla zegoen aurreko finala, Oinatz Bengoetxea igandean jokatzeko baitzen maila nagusiko lau t'erdiko finala. Azkenean, ordue, atzeratzea eskatu du.
Pena da, baina, igandean jokatzeko moduan ez izatekoen, hobe atzeratzea. Gaitxo eta ahal dugue la esan du, eta horrelako final bat

«Ohiko urduritasunak kenduta, irrikak nago, larunbata iritsi eta finala jokatzeko»

jokatzeko topean egon behar da. Tipsean egonda ere nahikoa izan izaten da, beraz, pozets.
Olaizolaren aurka da finala. Zer uste duzu partidak dela?
Nik bezala, Oinatzek ere partida gogorra izango du. Aimaire faboritoa. Baina, ikusi da Oinatz oso inlarisuz dagoela, eta birakoko asko egiten duela, eta ligakaren erakutsi duen maila berarekin jokatzeko moduan egon behar da. Tipsean egonda ere nahikoa izan izaten da, beraz, pozets.

Gasteizko Ogean izango den partida ikusleak joango al zara?
Uste dut baietz. Igandean konstant jokatzeko bezain joateko asmos nuen, beraz, distoren igandean ere lan izango naitela uste dut.
Azeriako festa Leitza biak irabazteko ere, etzi?
Bisteiko biak irabaztea festa handia izango da, eta biok txapelakirin irabazteko bagara, zer esanik ez. Ea hori gertatzen den.

jantzigintza

- Diseinua
- Eraldaketak
- Konponketak
- Artizan-andre jantzigintza
- Inauterietako moztoreak

Gernikako Arbola 1 behean • TOLUSA • 943 24 43 64 • elvinkerru@gmail.com

bi gas Lekeotikoa erregeneratzen

130€

www.mauka.com

TXDKO hitza

zozketa
2 sarrera

LAGUN ARO GBC
Herrialde Gran Canaria saskibaloi partida

lapidua • abenduak 9-18:00
Dondotza Luruban

Zozketan parte hartzeko dirua, ongi gisa 14.30ak baino lehen **943 65 56 95** telefono zenbaitan.

saridunak
hamar harpidedunentzat laura sarrera

Abenduak 6tik 9ra Il Circo Italianok, emango dituen emanaldiatarako

Abenduak 6tik 9ra / Tolosa San Esteban auzoan
Emanaldiak: abenduak 6, 19:00etan
abenduak 7, 19:00etan
abenduak 8, 19:00etan
abenduak 9, 19:30etan eta 19:30etan

Abenduak 6tik 9ra / Tolosa San Esteban auzoan
Emanaldiak: abenduak 6, 19:00etan
abenduak 7, 19:00etan
abenduak 8, 19:00etan
abenduak 9, 19:30etan eta 19:30etan

TXDKO hitza



Gipuzkoako Ibilbideak bilduma argitaratu dute herrialdeko bost HITZA egunkariak. HITZA

↓ Eskualdeetako berritasunak Durangon

ALDIZKARIAK

- **Erlea.** Bernardo Atxagak koordinatua eta Euskaltzaindiak argitaratua. Aldizkariaren 6. zenbakia argitaratu dute aurtengozan.
- **Euskal Herria Sozialista.** Euskal Herria Sozialistak argitaratua. 35tik eta 40ra zenbakiak argitaratu dituzte 2012an.

DISKOAK

- **Iñar Sastre.** *Jolasak* (Ausart Records).
- **Glaukoma.** *Glaukoma vol. 1* (Bonberenea Ekintzak).

LIBURUAK

- **Jesus Altuna.** *Aitzbitarte III (Euskal Herria) giza aztarnak 33.600-18.400 BP (sarrerako eremua)* (Eusko Jaurilaritza). Koro Mariezkurrenarekin eta Joseba Riosek in batera ateratu du liburua.
- **Dauid Anaut.** *Hizkuntzaren barrurako atea* (Udako Euskal Unibertsitatea).
- **Bernardo Atxaga.** *Paradisua eta katua* (Pamiela); *Jabier Murguzarekin batera*, *Henry Bengoa Inventarium* (Pamiela), *Victor Arribabalaga: beste libururu batzuk* (Bizkaiko Foru Aldundia); *Mario Onaindiarekin eta Leire Bilbaorekin batera*, *1937: bizitzak eta bonbak* (Bilbao Bizkaia Kutxa).
- **Ione Gorostarzu.** *Des egiten* (Elkar).
- **Maitte Gurrutxaga.** *Maitagarria eta desioak* (Elkar), *Amatzen uzta* (Erein). Gurrutxagak liburuen ilustrazioak egin ditu.
- **Juan Kruz Igerabide.** *Serio*

- demonio* (Elkar), *Motoa* (Alberdania).
- **Joxe Mari Iturralde.** *Ilargi horria* (Pamiela), *Henry Bengoa Inventarium* (Pamiela), *Kaleidoskopioa* (Pamiela).
- **Karlos Linazasoro.** *Apenas* (Utriusque Vasconiae), *Bertan goxo* (Elkar), *Ezer gehiago behar gabe* (Pamiela).
- **Iñaki Mezquita.** *Libélulas de Bizkaia* (Bilbao Bizkaia Kutxa).
- **Asier Hilario Orus.** *Flysch biotopoa* (Gipuzkoako Foru Aldundia).
- **Xabier Olarra.** *Hoben-ordaina* (Igela), *Zerua gainbehera dator* (Igela). Olarrak liburuen itzulpenak egin ditu.
- **Ramon Olasagasti.** *Izurde bat lorategian* (Bruño), *Rita estu eta larri* (Elkar). Olasagastik itzulpenak egin ditu.
- **Patziku Perurena.** *Saski bete intxaur* (Alberdania).
- **Yurre Ugarte.** *Todo es rojo* (Alberdania).

IKUS ENTZUNEZKOAK

- **Eneko Aritzaren Lagunak.** *Sua*. Azoka alternatiboan egongo da salgai.

PARTAIDEAK

- **Bonberenea Ekintzak.** *Aldaketa*, *Bad Sound System*; *Anai Arrebak*, *Anai Arrebak*; *Bonberenea Ekintza 2002/2012 doinuuen hamarkada*, zenbait egile; *Ez gara inoiz hilko*, *Erasol*; *Glaukoma vol. 1*, *Glaukoma*; *Hirugarren azala*, *Anger*; *KKLRD*, *KKLRD*; *Sortuz, grabitatearen aurka*, *Zea Mays*.
- **Sointek.** *Euskaraokea*, *Miruren aintzirako ipuinak*, *Onkilkilon*: *haur kantak*.

↓ HITZAko produktuak Durangon

ARGITALPENAK

- **Gipuzkoako Ibilbideak.** HITZA egunkariak bakoitzak bere eskualdean bildutako ibilbideen bilduma. Bost eskualdeetako ibilbideak daude.
- **Gabonetako kantu liburuxka.**

men bat izango da. Izan ere, Gipuzkoan argitaratzen diren bost HITZA egunkariak euren eskualdeetako hainbat ibilbide jaso dituzte liburuxka banatan. Bost liburuxka horiekin bilduma osatu da eta azokan erosi ahal izango da. *Gipuzkoako Ibilbideak* izenarekin argitaratu da bilduma, eta ibilbide ugari egiteko aukera ematen du Gipuzkoan zehar, hainbat herri eta bere txokoak ezagutzeko aukera emanez. Bilduma sei eurotan erosi ahal izango da.

Arrakasta handia izaten duten

- **2013ko mahai egutegia.**

LIBURUAK

- **1936ko gerraren oroitzapenak Tolosaldean eta Leitzaldean.**
- **Frankismoa eta Trantsizioa Tolosaldean eta Leitzaldean.**

beste bi argitalpen egongo dira azokan ere, hauek TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK eginak. Batetik, 2013ko mahai egutegia, eta, bestetik, Gabonetako kantu liburuxka. Bi hauek doan banatuko dira postuan bertan. Horrez gain, bi liburua izango dira salgai, berriki argitaratuak: *1936ko gerraren oroitzapenak Tolosaldean eta Leitzaldean* eta *Frankismoa eta Trantsizioa Tolosaldean eta Leitzaldean*. Lehenengoa 12 eurotan eta bigarregoa 12 eurotan izango dira salgai; biak batera 15 eurotan erosi daitezke.

Tolosaldeak eta Leitzaldeak ordezkariak zabala izango dute Durangoko Azokan

HITZA egunkaria Berria Taldearekin batera izango da azokan, bere produktuak eskainiz

Imanol Garcia Landa

Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokak atek irekiko ditu gaur eta igandera arte egongo da zabalik. Tolosaldeko eta Leitzaldeko ordezkariak zabala izango da bertan, bai literatura eta baita musikaren aldetik ere. Tartean, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK bere produktuak erakusgai eta salgai izango ditu.

Eskualdeetako ohiko egileak aurtur ere ez dute huts egingo azokan. Bernardo Atxaga, Juan Kruz Igerabide, Joxe Mari Iturralde edo Karlos Linazasororen argitalpen berrienak bertan izango dira. Yurre Ugarte tolosarrak idatzitako azkena eta Leitzaldetik Patziku Perurenaren eta Dabid Anauten obrak izango dira. Xabier Olarra eta Ramon Olasagasti itzultzaileen azken lanak ere azokan aurkitu ahal izango dira. Lehenengo aldiz Durangon bere lana salgai ikusiko du Ione Gorostarzu berastegiarrak.

Liburuen alorrean, Maite Gurrutxagak ilustratutako bi argitalpen berrienak ere bertan izango dira. Ezin dira ahaiztu dibulgazio lanak. Jesus Altuna, Asier



Gabonetako kantu liburuxka. HITZA



Sua filmaren DVD-aren azala. HITZA

Hilario Orus eta Iñaki Mezquitak bakoitzak bere alorrean egindako berritasunak izango dira azokan.

Eskualdean sortutako musikak ere bere lekua izango du. Hala, Glaukoma taldeak bere lehen diskoa izango du erosgai azokan. Iñar Sastre musikariaren lana ere bertan izango da.

Ione Gorostarzu eta Glaukoma taldearen lanak, lehen aldiz azokan

Ikus entzunezkoen alorrean ere izango da ordezkariak. Eneko Aritzaren Lagunak *Sua* filma DVD formatuan ateratu berri du eta zortzi eurotan erosi ahalgo da azoka alternatiboan.

Aldizkariak dagokionez, *Euskal*

Herria Sozialista-ren aurtengozko sei zenbakiak eskuratzeko modua izango da, eta baita Euskaltzaindiak argitaratu eta Bernardo Atxagak koordinatzen duen *Erlea* argitalpenaren seigarren zenbakia ere.

Bere postua izango duten kultur eragileak ere egongo dira. Hala, Bonberenea Ekintzak diskoetxea izango da eta, besteak beste, aurtur grabatu dituen zortzi lanak izango ditu salgai. Sointek ekoizpen etxeari ere bere produktuak izango ditu azokan, besteak beste, aurtur argitaratu dituzten hiru obrak.

Gipuzkoa ezagutzeko

HITZAK hainbat produktu eraman ditu Durangoko Azokara. Goienkale 62 eta 63 helbidean izango da, Berria Taldearekin batera. Aurtur berritasun nabar-



Nerea Lizarraga Zizurkilgo alkate ordea, herritarrekin batera, herriko plazaren hiritartzeaz hitz egiten. HITZA

Joxe Arregi plazako proiektuari herritarren ekarpenak gehitu dizkiote

Komun publikoak, gune berde bat, nerabeentzako gune bat eta estalpea gehituko zaizkio proiektuari

A. Imaz Zizurkil

Zizurkilgo Joxe Arregi plazako urbanizatze proiektua EAJren udalak zehaztu zuen aurreko legegaldian. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialak eta instituzioek markatzen dituzten bideetatik haratago, Bilduko udal talde berriak parte hartze prozesu baten beharra ikusi zuen: «10. gune urbanizatze proiektua itxita zegoen. Udal gobernu berriak, ordea, herritarren ekarpenak jasotzea beharrezko ikusi zuen, plaza hori Zizurkilgo etorkizuneko gune erreferentzial izango dela kontuan izanda, eta proiektua parte hartzearen bidez hobe zitekeelakoan».

Herritarrekin lehen batzarra ekainean egin zuen udalak. Ber-

tan, aurreko proiektua aurkeztu eta horren gainean herritarrek egindako aldaketa proposamenak jaso ziren: «Jasotako proposamenak aztertu ondoren, proiektuan nola txertatu pentsatzen egon gara hilabete hauetan», azaldu dute udaletik. Lanketa horren emaitza, Nerea Lizarraga alkate ordea aurkeztu zuen herenegun, herritarrekin egindako batzar berri batean.

Berrikuntzak

Egindako ekarpenak kontuan hartuta, aurreko proiektutik hainbat aldaketa egongo dira. Alde batetik, komun publikoak eskatu zituzten herritarrek. Atxulondo kutur etxean igogailua jarri behar denez, eta horretarako Atxulondo tabernako komunetan obrak egin behar direnez, lan horiek baliatuko dira komunak berri eta tabernarako zein zerbitzu publikorako komunak egokitzeko.

Gune berdeen falta izan zen aipatutako beste gaietako bat, eta

pare bat txertatu dira proiektuan, nerabeentzako gune batekin batera. Udaletik azaldu dutenez, «Lehen proiektuan bi parke aurreikusten ziren, baina ekaineko bileran, bi parkeetako bat nerabeentzako gune gisa jartzea proposatu zen, bankuekin eta gune berde batekin».

Herritarrek eta udal ordezkariak, aurreko proiektuan agertzen ez zen estalpe baten beharra ikusi zuten ekainean: «Azterketa eginda, ikusi da estalpeak ezin duela plaza erdian joan, plazaren erabilera asko mugatzen duelako. Orduan, 300 metro karratuko estalpe bat proposatu da, plazaren izkina batean, eta etxebizitzetara egongo litzatekeena».

Proiektua berregiteak kostu gehigarria ekarri dio udalari, eta Nerea Lizarragak herenegun azaldu zuenez, plazako elementu guztiak ezingo dira 2013an zehar egin. Ondorioz, datorren urteko aurrekontuetan, lehentasuna zerk behar duen eztabaidatu zuten batzarraren amaieran.



Aizkardiren V. Argazki Rallyko sarituak, Gurea zineman. HITZA

Imanol Amantegik irabazi du V. Argazki Rallya

A. Imaz Villabona

Aizkardiren V. Argazki Rallyko sariak mendi astearren barruan banatu zituzten. Imanol Amantegiren argazkiak irabazi zuen lehen saria. *Biderako ura* izeneko argazkiarengatik, 150 euroko saria lortu zuen Amantegik. Juan Jose Robles bigarren sailkatu zen, 100 euro irabaziaz, eta Margarita San Josek, hirugarrenak, 75 euro eraman zituen etxera.

Ikuslearen saria irabazten zuen Amasako Iturri Goxo jatetxean bi lagunentzat afaria lortzen zuen, eta hori, Garazi Aranburu izan zen. Gazteen mailako sarituak, azkenik, mendi materiala irabazi zuten.

↓ Sarituak

V. ARGAZKI RALLYA

■ 12 urtetik beherakoak.

- Maialen Perez, *Bidearen amaieran argia*.
- Olaia Ugarte, *Paseoa*.
- Iune Galarraga, *Udazkenaren bidetik barrena*.

■ Nagusiak.

1. Imanol Amantegi, *Biderako ura*.
 2. Juan Jose Robles, *Sahara*.
 3. Margarita San Jose, *Udazkena*.
- **Publikoaren saria.**
- Garazi Aranburu, *Hostoz-hosto, bidezidorretik*.

Bigarren eskuko azoka, «arrakastatsua»

A. Imaz Villabona

Villabonako Bigarren Eskuko Jostailu Azoka egin zen hilaren 1ean. Udaletik azaldu dutenez, «lehenengo edizioa izanik, ekimenaren balantzea oso positiboa izan da». Goizean-goiz, jendeak era guztietako jostailuak eraman

zituen azokara, saltzeko. «Jende dezente etorri zen goizean zehar azoka ikusteraz. Egia esan, egiten zuen hotza kontuan hartuta, ezin dugu kezatu azokak izan duen harreraz. Lehen edizio honetan, material asko jarri da salgai, eta salmenta kopurua oso ona izan da», berretsi dute udaletik.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena



GOIZA	EURIA
ARRATSALDEA	EURIA
BEROENA	15°
HOTZENA	8°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Eneritz Maiz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@hitza.info

Tolosa Herria Hedabideak SM-ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



Galtzaundi euskara taldea



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Arnezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

DEIALDIAK

- **Asteasu.** Nazioarteko XIV. Ziklo Kros lasterketa, gaur, 09:30etik aurrera. Lehenengo kadeteak aterako dira, 10:30ean masterak, 11:30ean juniorak eta 12:30ean 23 urte azpikoak eta elite mailakoak. 08:00etatik aurrera eman ahalko da izena.
- **Tolosa.** Zesta punta jaialdia, gaur, Beotibar pilotalekuan, 17:00etatik aurrera. Egiguren-Alliez Oiharan-Hernandez ariko dira partida nagusian.
- **Tolosa.** Tolosa & Co merkatarri elkarteak hainbat ekitaldi antolatu ditu gaurko: 11:00etatik 13:00etara aeromodismoa izango da Berazubini; 12:00etatik 14:00etara itsasmodelismoa Zerkausiko ontziraletan; 14:00etatik aurrera burruntzien eta hanburgesen azoka Zerkausian; tren turistikoa Tolosatik barrena egun guztian zehar; eta Hipo ta Tomax pailazoak Zerkausian, 17:30ean.
- **Tolosa.** Txuletaren Festa izango da gaurtik hilaren 9ra. Zerkausiko eta Euskal Herria plaza-ko otorduetarako txartelak Tolosaldea Tourren eskatu behar dira, 943 69 74 13 telefono zenbakira deituta, edo tour@tolosaldea.net helbidera idatzita.
- **Tolosa.** 1962 urtean jaiotakoek euren 50. urteurrena bazkari batekin ospatzea pentsatu dute. Abenduaren 15ean izango da, eta parte hartu nahi duenak tolosa1962@gmail.com helbidera idatzitako beharko du. Zalan-

tzarik izanez gero ere, helbide horretan egin daitezke galderak. Gaur izango da izen emateko azken eguna.

ERAKUSKETAK

- **Larraul.** Koldo Jauregiren aho soinu bilduma museo etnografikoan, urte bukaerara arte.
- **Tolosa.** Mariona Masgrauren 110 lan biltzen dituen *Bidaia bat txotxongiloen mundura* erakusketa, Topicen.
- **Tolosa.** Inmakulada ikastetxeak eta Mugen Gainetik-ek antolatuta, Guatemalako Ixil eskualdeko emakumeen inguruko erakusketa, Aranburun.

ZINEMA

- **Tolosa.** Leidor aretoan *Martes después de Navidad* filma gaur, 19:15ean eta 21:45ean.

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Egunekoak: Bronte C. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.
- **Lekunberri.** Mendia, M. I. Aralar kalea, 25. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Irudia Irura-Villabona-Zizurkil



EUSKARAREN EGUNA ESKOLETAN

Asteleheneko Euskararen Eguna ekitaldi ugari utzi ditu eskualdeetako eskoletan. Iruran besteak beste, kalejiran joan ziren plazaraino, eta Jose eguneko gonbidatu bereziaren eta Bull-en dultzainarekin abesten aritu ziren ikastolako haurrak (lehen irudia). Villabonako Fleming ikastetxean ere hain-

bat ekitaldi izan zituzten, lehen hezkuntzako ikasleek esaterako, euskal karaokea egin zuten eta sokatiran ibili ziren (bigarren eta hirugarren irudiak). Villabona eta Zizurkilgo Jesusen Bihotza ikastolan ere, besteak beste, ikasleek emanaldi berezia eskaini zioten Argitxo iratxoari (azken bi irudiak). HITZA

Agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

AGURRAK

943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info